

# Euskara: ikonografia bidezko ibilbidearen kronika

## Begoña Bilbao Bilbao

Euskal Herriko Unibertsitatea  
Didaktika eta Eskola Antolakuntza saila  
topbibib@lg.ehu.es

### Laburpena

Artikulu honetan Euskararen gaineko azalpenak aztertzen dira. Testuliburuetaiko ikonografia arakatu da oraingoan, Euskalingua 3an aipaturakoaren jarraipen moduan. Kode idatziaren eta ikonoen bidez ematen den informazioa osagarria den arren, badira desberdintasunak euskararen gaineko azalpenetan. Euskaraz idatzizko testuliburuetaiko euskara Euskal Herriko hizkuntza da ia mende osoan, amaieran EAerekin edo Nafarroako Foru Erkidegoaren mugatan jartzen da. Ikonografiak euskara Euskal Herriarekin lotuta agertzen du.

### Abstract

This article analyzes explanations of *euskara*, the Basque language. Following the article published in *Euskalingua-3*, this time the analysis focuses on textbooks iconography. Although the informations provided by the written code and by icons are mutually complementary, there are certain differences in the explanations of Basque language. In the textbooks written in Basque, *euskara* has been linked to the Basque Country throughout the XX century, whereas at the end of the century, it has been limited to the Basque Autonomous Community and the Foral Community of Navarre. However, in the iconography *euskara* appears linked to the Basque Country.

**Hitz gakoak:** Curriculum, euskara, testuliburu, ingurunearen ezaguera, ikonografia.

### Sarrera

Euskalingua 3 zenbakian argitaratu zen “Euskara XX. mendeko testuliburuaren arabera”. Euskararen gainean idatziz ematen diren azalpenen gainekoa izan zen ordukoa, oraingo honetan ikonografiari ekingo diogu.

Testuliburuaren gainean burututako ikerketetan mezu idatzia zein ikonografikoa aztertu izan dira. Ikuspuntu desberdinetatik sarritan, baina biei ematen zaie ikergai bihurtzeko besteko estatusa.

Badirudi oraintsu arte garrantzi handiagoa eman zaiola testu idatziari ikonografiari edo tipografiari baino. Erabili beharreko hiztegia, estiloa, testuaren egitura edo ulergarritasuna ziren egileei axola zitzaizena. *Libros de texto en el caleidoscopio* liburuan (1996, 192) Egil Borr Johnsen-ek aipatzen digunez, Woodward-ek dio testu idatzia eta irudien arteko erlazio aztertuta, ikonografiaren kopurua handiagoa dela irakaskuntzako lehenengo mailetan goi mailetan baino, hau da, gero eta gorago joan irakasmaitan, gero eta testu idatzi gehiago eta ikono gutxiago agertzen dela.

Urte askotan idatzizko kodeari eman zaio garrantzia, testuliburuaren zatirik ikertuena berori izanik. Autore batzuen ustez, testu idatzia da informazioaren euskarri nagusia, bera da ildoak markatuko duena, ikonoak testuaren laguntzaileak izanik. Motibatze edo informazio idatzia argiago ulertzeko baino ez duela balio diote batzuek, ahaztuta nonbait batzuetan irudi batek mila berbak baino gehiago balio duela

Habermas-ek (1981) dioten legez, diskurtsoak eragina dauka ikaslearengan. Bestalde, ideologiak taldeen arteko gatazka, taldeen identitatea, botere arazoak.... islatzen ditu eta. Van Dijk-ena (1996, 9-49) parafraseatuz, esan daiteke testuliburuak darabiltzan kontzeptu, balio, iritzi, edo elementu lexikalek zein ikonografikoez eredu sozialak eraikitzeko balioa dutela.

Kode ikonografikoa, bestalde, ez da askorik aldatzen XX. mendearen erdira arte. Kolore batekoek, tamainaz txikiak zirenek, aldaketa handia jasango dute mendearen erditik gora. Marrakzi eskematikoaren erabilerak markatuko du gero eta aldaketa gehiago izango duen sasoa. Hain izan zuen harrera ona non arlo eta maila guztietan erabili baitzen. Gainera, anonimoak ziren irudien egileei, orduan aurrera garrantzia emango zaie, testuliburuetaiko beren izena agerturik.

Testuliburuaren benetako eraldaketa, ordea, 1970eko hamarkadan izango da, ezen forma eta diseinu berriko liburuak sortuko baitira, joera pedagogiko eta aurrerapen teknikoek bultzatuta. Testuliburu modernoan munduan teknologia berriek eragin handia izango dute, eta moldiztegiek eta ikonografia modu berriak erabiltzeko dute eraldatuko dute liburuak. Zentzu honetan, Choppin-en esana gogoratzea nahi genuke. Honen ustez, erraminta polifonikoa dira testuliburuak, ikasleentzako edukiak -idatziz eta ikonoen bidez- azaltzeko gain, eurok sakontzeko ariketak, edo irakurgaiak ere planteatu behar dituzte, eta guztia ahal denik eta modu erakargarrienean. Idatzizko testuan zein ikonoetan koloreak erabiltzen dira, polikromoak dira testuliburuak. Ikonografia asko darabilte, argazkia

gehienbat, marrazkiarekin lagunduta. Edozelan ere, ikonoa eta testu idatzia, biak batera irakurri behar dira, ikonoaren ohiko laguntza rola aldatu egin baita, mezu formal nabarmendu edo aldatu egin dezake eta.

Urteen joanean, ikonografiaren erabilerak gora egingo du etengabe ikergai bihurtu arte.

Ingurunea ezagutzeko balioa duen arloko testuliburuetan hizkuntza da –beste ezaugarrien artean-, aipagai. Euskara azaltzeko testu idatzia eta ikonografia erabiltzen dira, biak, baina ez beti modu berean. Ikonografiaren erabilerak gora egin duen arren, egungo testuliburuetan euskararen gainean ematen den informazioa ez da ikonografian askorik islatzen.

## 1. Ikonografia bidezko euskara

Ikonografiaren erabilerari bagagozkio, Euskal Herrian erabili diren eta erabiltzen diren testuliburuetakoa aldatu egin direla dakusagu. Kopuru zehatzetara joanda, hurrengo taulakoak dira aldaketaren berri ematen diguten datuak:

Urtea	1970	1990	2000
Ikonoak guztira	2649	8386	11193
Ikonoak orriko	0,98	1,81	1,97

### 1. Taula

Erraz ikusten da XX. mendetik 1970. urtera bitartean, testuliburuetakoa orri bakoitzean ikono bakarra –ozta ozta-, darabilteela. Harrez gero, ikonografiak gorako joera etengabea agertzen du, gaurko testuliburuetakoa askotan irudiak berak testu idatziak baino leku handiagoa hartu arte.

XX. mendearen hasieratik mende erdia pasa arteko liburuetan ez zaio euskarari presentzia nabarmenik ematen. Orduko eskola eta gaurkoa desberdinak dira, curriculum bera ere aldatu egin da, ikasten diren edukiak eta testuliburuak ere aldatu dira. Orduko liburuetan ez dago gaurkoetan aurkitu dugun gaitegia, oinarriko ezagutzak beste batzuk dira eta. Liburu bakarra erabiltzen zen eskolan, idazten eta irakurtzen ikasteko balio zuena.

Eusko Ikaskuntzak eta Lopez Mendizabalen lanek bideratu zuten mendearen hasierako liburugintza. Euskaraz argitaratutako liburuak modernoak ziren, tipografia eta ikonografia berria eta koloretsua zuten. Ikono guztiak dira marrazkiak, ez dago argazki edo bestelako teknikarekin egindako ikonirik. Sasoi honetan ikonografia mota hau da erabiliena, marrazki eskematikoa deitzen dena. Marrazki mota hau berrikuntza artistikoa eta didaktikoa izan zen orduko sasoiaren, marra sinplea marraztea erraza delako, eta bai maisu-maistrak arbelean zein ikasleak koadernoan kopiatzeko erraza delako.

Geroago, entziklopediaren erabilera hedatu zen, gazteleraz eta frantsesez. Hegoaldean *Enciclopedia Alvarez* ezaguna aukeratu dugu eta Iparraldeko Nathan argitaletxearen *Las Ciencias Aplicadas*. Guztira, 2.649

ikono arakatu ditugu aro honetako testuliburuetan, hau da, ia ikono bat orriko. Euretari oso gutxi daude hizkuntzarekin loturan. Guztira %2,26 baino ez. Hizkuntzarekin diogu, euskarari buruzko ezer gutxi azaltzen delako liburu hauetako ikonografian.

Izan ere, aurkitu ditugun ikonirik gehienak *entziklopedia Alvarez*-n topatu ditugu eta 60 dira guztira. 60 ikono hauetatik 35ek estatua dute erreferente, Espainia.

*Enciclopedia Alvarez* honetan hizkuntzarekin lotura duten ikonoetan pertsona ezagunak agertzen dira. 31 ikonotan Estatuko pertsonaia garrantzizkoak aurkitu ditugu: Cervantes, Gabriel y Galán, Francisco Benavente, Azorín, Lope de Vega, Unamuno, Fray Luis de Granada, Manuel Machado. Ia guztiak erdal idazleak, idazle ospetsuak.

Pertsonaia guztietatik erdia baino gehiago, % 58,33 espainola da. Hortik gorako batzuk, % 36,66, zehaztu gabe agertzen dira, hau da, ez daukate erreferentzia zehatzik, eta geratzen direnak kanpo herriekin dute harremana.

Aipatzeko modukoa da, bestalde, liburu honetan datozen pertsonen generoa. Pertsonaia hauek gizonezkoak dira gehienak, zenbaki zehatzetan % 68,33.

Emakumezko gutxi daude ikono hauetan, bost baino ez, % 8,3. Nortzuk diren emakume horiek? Hizkuntza eta literaturarekin zerikusia duten idazleak gehienak: *Santa Teresa de Jesús*, *Cecilia Böhl de Féber*, *Virgen del Pilar* eta *Concepción Arenal*. Egia esan lau emakume baino ez dira agertzen, *Santa Teresa* birritan aipatzen da eta.

Pertsonaien adina begirata, pertsona heldua islatzen dela esan dezakegu, liburuetakoa erdua sasoi onean dagoen laguna dela. Guztietatik % 61,66 pertsona helduak dira, zaharrik ez dago eta % 8,3 dira umeak. Gazteentzako liburua izan arren, ez da gazte askorik agertzen, % 3,33 bakarrik. Liburuetan ume eta gazteentzako ereduak ematen direla pentsa dezakegun arren, datu honek aditzera ematen digunez etorkizunerako helduen ereduak lantzen dira. Deigarria da, beste alde batetik, pertsona zaharrik ez egotea. Badirudi, zahartzarua eskola mundutik kanpo geratzen dela.

Hurrengo sasoiaren gertatzen ez den moduan, lehen aroko liburuetan paisaiak baino presentzia handiagoa dute bestelako kultur ezaugarriak. Hor, itxurari baino izaerari garrantzia handiagoa ematen zaio.

*Xabierto*, *Lutelestia* eta *Sabin euskalduna* liburuetan euskara Europako Herri zaharrenetakoaren hizkuntza da. Euskalduntasuna abertzaletasunagaz dago lotuta. Jakintsuen harridura sortzen duen hizkuntza da.

*Enciclopedia Alvarez* deritzan liburuan hizkuntza herri edo nazio bateko berbeta da. Dialektoak berriz hizkuntzaren modu bereziak dira. Baina hor kontua!

Euskara ere hauen artean aipatzen du, nahiz eta gaineratu hizkuntzaren estatusa daukala.

*Enciclopedia Alvarez*-en Espainiako hizkuntzen artean kokatzen da euskara, gaztelari emanetz hizkuntza nagusiaren lekua.

Badirudi liburuan erabiltzen den hizkuntzak badaukala eraginik hizkuntza bera azaltzeko orduan. Euskaraz idatzitako testuliburuetan euskara da hizkuntza erreferentea, eta gaztelaraz dagoenean hizkuntza erreferentzia ere gaztelera da. Euskarari buruzko azalpenetan euskarak hartzen du protagonismoa eta gaztelaraz gaztelaniak.

Euskarari buruzko edukia testuinguratzeko orduan modu desberdinean jokatzeko dute testuliburuak. *Xabiertxo*, *Sabin euskalduna* eta *Lutelestia* Euskal Herrian kokatzen dira. Euskara Euskal Herriko hizkuntza da.

## 2. Curriculumaren aldaketak euskara agertzeko era desberdina dakar.

1970 arteko liburuetan marraskia zen ikonografia modu bakarra, baina harrezkerokoetan grafikoak zein taulak edo komikiak aurkitzen dira. Argazkiaren erabilera ere zabalduz doa liburugintzan, errealitatea ikasgelara hurbiltzeko baliabide egokia den heinean. Sasoi honetako ikonografia, bestalde, era askotakoa da aurreko epekoarekin alderatuz.

1990era arte luzatzen den sasoiaren, aztertu ditugun liburuetan 8.386 ikono aurkitu ditugu. Hizkuntzarekin zeozelako harremana dutenak 54 baino ez dira. Aro honetan hizkuntzarekiko erreferentziarik gehienak euskararekin lotuta agertzen dira, % 66,66 hain zuzen. Aldaketa handia dago aurreko aroarekin alderatuz gero, han aurkitu ditugun erreferentziak eta oraingoak ikus daitezke hurrengo taulan:

	Euskara	Gaztelera/frantsesa	Bestelakoa
1970-1990	%66,66	%9,25	%24,09
1990-2000	%46	%18	%36

### 2. Taula

Arteko zein hurrengo epeko datuekin alderatuz gero, gora-behera adierazgarriak daudela ikusten dugu. Estatuko hizkuntzaren aipamenak erdira jaisten dira bigarren aroan, hau da, alderantziz esanda, bigarren arotik hirugarrenera % 9an hasten dira hizkuntza estatalaren aipamenak. Euskarari egiten zaizkion aipamenak askoz gehiago dira 1970-1990 bitarteko aroan. Eta hurrengoan -1990tik 2000ra doan hamarkada horretan-, euskara gero eta gutxiago aipatzen den bitartean, estatuko hizkuntza gero eta gehiago agertzen da.

Bigarren aro honetan erreferentzia estatalak agertzen dira, eta baita "bestelakoak" deitu izan ditugunak ere: hauen artean aipagarriak dira, hainbat direlako, *Saioka*-n lantzen diren estaturik gabeko herriak. Horien

hizkuntzari egiten zaizkion erreferentziak dira hain portzentai handiaren arrazoia.

Hizkuntzarekiko erreferentzia egiten duten ikonoak bigarren aroko 10 liburuan zenbatu ditugu. Hizkuntza testu idatziaren bidez baino ikonografiaren bidez liburu gehiagok aipatzen dute. Orotara, testuan aipatzen izan dutenak 8 liburu izan dira. Ondoko taulan ikus daitezke, alderatuta, bateko eta besteko aipamenak:

	Ikonografia	Idatzia
Saioka gizarte arloa. Cinsa	11	bai
Saioka natur arloa. Cinsa	2	bai
Aurkitzen gizarte. Ibaizabal-Erein	10	bai
Descubrir mi país. Erein Ibaizab	10	bai
Geographie-Hachette	3	ez
Physique-Biologie-Technologie-Informatique-Hachette	3	ez
Kuxkux-giza zientziak. Elkar	6	bai
Sirimiri-Esperientzi arloa. Elkar	4	Bai
Ardatz. Bruño	4	bai
Esperientzi-gizarte. SM	1	ez

### 3. Taula

Taula honetan hizkuntzarekin erlazionatuta dauden ikonoen banaketa ere ikus daiteke. Aipamen gehien egiten duten liburuak *Saioka* eta Erein-Ibaizabalek argitaratutako *Aurkitzen* gizarte arlokoa dira.

Ondorioz, hizkuntzari buruzko aipamenak direla eta, zera baieztatu dezakegu:

- *Aurkitzen*-ek jokabide antzekoa daukala testu idatzian zein ikonografian
- *Kuxkux* eta *Ardatz* liburuek askoz aipamen gutxiago agertzen dutela ikonografian.
- Saioka-k ordea, erreferentzia gehiago egiten ditu ikonografiaren bidez idatziz baino.
- SM-k ikonografia bidez egiten du aipamen bakarra.

## 2.1. Hizkuntza eta mapak

Hizkuntzarekin harremana duten ikonoetatik gehienak mapak dira 1990era bitarteko testuliburuetan, nahiz eta bestelako argazki eta marraskiak ere agertzen diren. Ikonoetatik erdiak mapak dira hizkuntzaren gaineko azalpenak ematerakoan. Zein da mapa horietan mugatzen den lurraldea? Edo nongoak dira mapa horiek?

Ondoko taulan ikus daiteke zein lurralde adierazten den mapa horietan:

Hizkuntza mapak	
Vasconia	%7,14
Euskal Herria	%67,85
Espainia	%3,57
Frantzia	%14,28
Estat-gabek-nazio	%7,16
	%100

#### 4. Taula

Maiztasunari begiratu gero, Euskal Herriko mapak dira gehien agertzen direnak, % 67,85. Bestalde, aipagarria da Vasconiarri ematen zaion lekua. Euskararen mapa askotan sarritan edo ia beti lurralde hori agertzen da, gehienetan euskararen atzerapena adierazteko baino ez bada ere.

Estatuei dagokien lurraldea ere agertzen da hizkuntza-mapetan, bai Espainia baita Frantzia ere. Kasu honetan Frantziakoak askoz ugariagoak dira Espainiakoak baino. Honen arrazoia Iparraldeko testuliburuetan dago. Han -Frantziako ohiturari jarraituta-, mapari garrantzia handia ematen zaio, lurraldearen erreferentzia askotan ematen baitaia ikasleari.

Estaturik gabeko nazio batzuk ere badira irakasgai, gehien bat *Saioka* liburuetan. Horien presentzia ezin daiteke aipatu barik utzi, nazio horien hizkuntza-mapak hainbat dira eta. Nahiz eta guztien maparik agertu ez, katalan herrialdeak, Aragoa, Galizia, Portugal, Andalusia, Gaztelar Herriak, Okzitania, edo Frantsez herrialdeak dira besteak beste, *Saioka*-n azaltzen diren herriak.

## 2.2. Hizkuntza eta pertsonaiak

Hizkuntzarekin lotutako ikonoetan ez dago pertsonaiarik. Dauden اندرازkoak zein gizonezkoak, gazte edo zahar, denak dira gizaki arruntak, ezezagunak, anonimoak. Egon badaude pertsonaiak, badute garrantzia liburuetakiko ikonografian, bigarren aroko 8.386 ikonotatik % 2 pertsonaiak baitira, baina ez dute harremanik hizkuntzarekin.

Pertsonak hizkuntzarekin lotura txikia dauka antza, pertsona ezezagunen kopurua guztira, % 11,1 baino ez da eta, hauetatik 3 gizonezko daude اندرازko bakoitzeko.

Ondorio gisa aipatu beharrean gaude 1990era bitarteko testuliburuetan lurraldearen itxura erakusteari garrantzia handia ematen zaion arren, epe honetan bestelako kultur ezaugarrien presentzia handiagoa dela. Hauen artean pertsonaiak dira kulturarekin lotutako ikonografian sarrien agertzen direnak, euskararen gaineko azalpenetan ez baita pertsona ezagunik agertzen. Edozein kasutan, gizonezkoak dira proportzio handian.

Mapak erabiltzen dira sasoi honetako testuliburuetan euskararen gaineko azalpenetan. Gehienak Euskal Herriko mapak izan arren, euskararen mapa askotan Vasconia deritzana sarritan agertzen da. Hizkuntza mapetan Espainiakoak baino Frantziako estatua maiztasun handiagoz agertzen da.

## 3. Mendearn amaierako egoera

Irakasle eta ikasle gehienek eskola orduetan, nahiz eskolaz kanpokoetan, erabiltzen dituzten testuliburuetakiko zati handia betetzen du ikonografiak. Testuliburuetan agertzen diren irudi, mapa, grafikoek eta abarrek beti izan dute garrantzia handia eskolan erabiltzen diren liburuetan. Gure gizartean irudiaren indarra gero eta handiagoa da eta testuliburuetan erdia inguru hartzen dute.

Sasoi honetako liburuek ikono asko dute. Aise antzematen da testuliburuetan irudiaren sasoi bizi gabela. Guztira aztertu ditugun 22.228 ikonotatik, sasoi honetakoak 11.193 ikono izan dira, kolore eta tamaina guztietakoak. Oro har, orri bakoitzean ikono bi daudela ikusi dugu, nahiz eta 581 ikonok orri osoa okupatzen duten.

Hizkuntzarekin erlazionatuta agertzen diren ikonoak, berriz, 50 baino ez ditugu aurkitu; %0,50era ozta-ozta heltzen da. Hizkuntza eta kultura 5. mailan lantzen direla kontuan hartuz gero, benetan ere kopuru txikia dela esan genezake.

Euskara edo gaztelera, zein den hizkuntza erreferentea begiratu gero, esan genezake aro honetan behera egiten duela euskararekiko erreferentziak, gaztelarak edo frantsesarenak gora egiten duten bitartean. Datu zehatzetan, euskararen aipamenak % 46 hartzen dute, gaztelera edo frantsesak % 18a hartzen duten bitartean.

Zeintzuk dira hizkuntza aipamenak ikonografiaren bidez egiten dituzten argitaletxeak? Ondoko taulan zehazten dira hamar hauek:

Elkar	1995
Erein	1994
Anaya-Haritz	1998
Edebé	1994
Edebé-Giltza	1994
Zubia-Santillana	1998
Bruño	1994
SM	1994
Ibaizabal-Edelvives	1994
Hatier	1998

#### 5. Taula

Aipamen idatzia egin duten liburuekin alderatu gero, argitaletxe batzuk aipamen idatzian eta ikonografikoan ez dute eduki bera erabiltzen, desberdintasunak ikusten dira batzuetan. Santillana-Zubia izenez 1994 eta 1995 urteetan agerturiko liburuetan, ez dago ikonorik hizkuntzarekin


erlazioatuta. Zubia-Santillanak ez du ikonografia erabiltzen, euskararekin lotuta, 1999ko liburuan.

Bruño-k, berriz, idatziz egin ez arren, ikonografia bidezko aipamenak sartzen ditu. Eta Hatier argitaletxearen *Histoire-Géographie* liburuan ikonografia erabiltzen da hizkuntzari buruzko aipamenak egiteko.

Aro honetako gainontzeko liburuetan, idatziz zein ikonografiaren bidez lantzen da hizkuntza. Berorri buruzko aipamen idatziak eta ikonografiaren bidez egiten diren hizkuntza aipamenak aztertuta, ondoko hau baieztatu daiteke: a) aipamen idatzia aurkitzen dugun liburu gehienetan, badagoela ikonografian ere, aipamenik, baina ez beti; b) alderantzizkoa ere gertatzen dela; ikonografian aurkitu arren aipamenen bat, idatzizkoan ez dagoela, alegia. c) Beraz, argitaletxeek ez dute berdin jokatu testu idatzian eta ikonografian adierazten dituzten edukietan.

Liburuetan erabiltzen den ikonografia motari buruz gehitu daiteke, liburuaren ezaugarri orokorretan esanenez, sasoi honetako liburuetan argazkia dela gehien erabiltzen dena eta hizkuntza aipamenetarako ere argazkia dela ikono motarik erabiliena.

Hurrengo grafikoa ikusten denez, testuliburuetan darabilten ikono desberdinen artean argazkia da maiztasun handiena daukana -%24-, jarraian, mapak daude -hizkuntza mapak dira hauek-, hurrengo marrazkiak, edo bestelako grafiko edo eskemak geratzen dira.



1. Irudia

### 3.1. Hizkuntza eta mapak

Hizkuntza eta mapen artean badago lotura, ez bigarren aroan dagoen bezain lotura handia baina bai aipagarria, % 24koa da eta.

Hizkuntza mapak	
Euskal Herria	% 66,66
Autonomia Erkidegoa	% 8,33
Espainia	% 25

6. Taula

Aipatu behar da Hegoaldeko egoera politikoa ikusten dela hemen, EAE eta Espainia dira mapa

hauetan agertzen diren subjektuak eta. Euskal Herria subjektutzat hartzen da euskarari buruzko azalpenetan, baina ez testuliburu guztietan.

Zer da mapen bidez lantzen dena? Hizkuntzarekin lotura duten aipamen hauek: euskalkiak, euskararen garapena edo atzerakadak.

1990 urtera artekoak eta 2000koak alderatuta aldaketa nabarmenak ikus daitezke: Autonomia Erkidegoaren presentzia da bata, eta Vasconia desagertzea da bestea. Mendearen amaierako testuliburuetan euskara EAeko mugetan geratzen da, Euskal Herriko lurralde osoaren ezaugarria dena muga autonomiko horrekin identifikatzen baita sarri askotan. Badirudi, euskarak ez daukala lekurik Nafarroan edo Iparraldeko testuliburuetan.

### 3.2. Hizkuntza eta pertsonaiak

Hizkuntza aipamenak egiten dituzten argazkietan zein eta zelako edukia dagoen begiratu gero, pertsonak eta argitarapenak agertzen direla ikusten da. Pertsona ezagunak dira batzuk, gure lanean "pertsonaia" izendatu ditugunak, eta ezezagunak edo izenbakoak dira besteak.

Erein argitaletxearen liburuetan agertzen da, baina bata euskaraz eta bestea berdina den gaztelarazko bertsioan, hizkuntzarekin lotura duen pertsonaia. Azkue, idazlea, hizkuntzalaria eta ikertzailea da Pertsonaia bakarrenetarikoa.

Pertsona ezezagun gehiago dago sasoi honetako ikonografian. Hizkuntzarekin harremana duten 50 ikono horietan, guztietan biltzen den edukietatik %42an pertsonak agertzen dira. Esan behar da presentzia handia dela, aro osoko datuetan % 27koa delako pertsona kopurua.

Generoa eta adina deskribatzaileak ezin ditugu aipatu barik utzi. Gure lanean pertsonak agertu izan diren guztietan, hauen generoa eta adina ere deskribatu dira. Hiru modutan sailkatu dugu generoa geure lanean: batetik gizona eta emakumeak bakarrik dauden ikonoak, bigarren andrazkoak bakarrik eta hirugarren bietarikoak batera, nahastean daudenean.

Gizonezkoen presentzia da nagusi, % 71,42an agertzen baita. Gizonezkoak eurak bakarrik dira kopuru horretan agertzen direnak.

Andrazkoak bakarrik dauden ikonoak askoz gutxiago dira: % 14,28 baino ez. Taldean daudenak ere ez dira asko, kasu honetan % 14,5.

Datu hauek esanguratsuak direla uste dugu, batez ere curriculum ofizialean aldarrikatzen denean, egiten den moduan, sexuen arteko berdintasunerako ikuspegiak landu behar direla. Eskolak, lehenengo moduan orain ere, gizonezkoen mundua baloratzen du andrazkoena baino askoz gehiago eta azken hau ezkutatu gizona zabaltzen da bakarra balitz moduan.

Azkenik, euskara nola erabilia izan den ikonografian laburtuko dugu daturik esanguratsuenak aipatuz:

1. Hizkuntza aipatzeko erabiltzen den ikonografia motak argazkia, eta mapak dira eta argazkietan pertsona ezezagunak dira gehiago ezagunak baino.
2. Pertsonaiaren garrantzia ez da oso handia hizkuntza gaietan. Halan eta guzti ere, askotan lotzen da hizkuntzarekin. Kasu guztietan gizona dira nagusi.
3. Hizkuntzaren hedapena eta euskalkiak azaltzeko mapak erabiltzen dira. Mapa gehienak Euskal Herrikoak dira; Autonomia Erkidegokoak ere agertzen dira, eta 1990etik gora indartu egin dira.
4. 1990era bitarteko testuliburuetan Vasconia eta estatutik gabeko nazioetako mapak erakusten dira, 2000koetan desagertuko direnak.
5. Mapetan Estatuak jartzen dituzten mugak - Frantziako eta Espainiako mapak alegia-, maiztasun handia agertzen dute.
6. Argitaletxeen artean, Elkar, Erein, Bruño, Zubia-Santillana eta Edebé dira hizkuntzaren ezaugarri batzuk azaltzeko Euskal Herriko mapa erabiltzen dutenak. Edozelan ere, Euskal Herriko maparik gehienak euskaraz argitaratutako liburuetan agertzen dira.

#### 4. Etorkizuna

Idatziz eta ikonografia bidez ematen diren azalpenetan, desberdintasun aipagarriak daude argitaletxe batetik bestera.

Hala ere Euskara, herri honen ezaugarria da -beste batzuen artean-, horrela azaldu izan da eskolako testuliburuetan.

Argitaletxe batzuk 2003-2004 kurtsorako ekoiztutako testuliburuetan ez dute aipatu ere ia egiten euskara. Euskal Herria azalpenerako gaia denean, ibaiak, klima, mendiak... edo antzerako ezaugarriak jorratzen dituzte. Gehien gehienez jaiak, dantzak, musika apur bat, baina euskarari buruz azalpen laburrak. Testuliburu bitan -argitaletxe desberdinetakoak-, aurkitu dugu. Batean, euskarak atzerakada handia izan duela azken 2000 urteetan eta hori azaltzeko mapa dakar, gaurko euskalkien banaketa erakusten da, baina ez Euskal Herriko mapa osoa. Bestean, euskararen jatorria azaltzeko, eskema bat eta Euskal Herriko tribuak agertzen dira, Euskal Herriko mapa batean kokatuta.

Hurrengo lege aldaketak ekarriko diguna ikusteko dagoen arren, baliteke aipatu dugun joera hau haren aurrerapena izatea.

#### Aipamenak

Bilbao, B. (2002): *Kultura erreferenteak oinarritzko hezkuntzako curriculumean*. EHU, Bilbo.

Bilbao, B. (2003): *Curriculum eta kultura Euskal Herrian*. Utriusque Vasconiae, Donostia.